

# Basauriko Udala

Administrari teknikaria

## 2. ARIKETA

|          |
|----------|
| A eredua |
|----------|

EUSKARAZ

Durango  
2025/05/03



- 1 Interesdun batzuek eskaera bat aurkeztu dute udalean. Norekin egingo dira horren ondoriozko jarduketak?**
- 1a) Ordezkarri bat izendatu beharko dute, eta harekin egingo dira eskaeraren ondoriozko jarduketak.
  - 1b) Berariaz adierazi beharko dute zein interesdunekin egingo diren jarduketa horiek.
  - 1c) Jarduketak eskabidean agertzen diren interesdunetako edozeinekin egingo dira.
  - 1d) Jarduketak eskaeran lehenengo agertzen den interesdunarekin egingo dira, besterik adierazi ezean.
- 2 Publizitaterik gabeko prozedura baten instrukzioan, prozedura instruitzen ari den toki-erakundeak ikusten badu badirela eskubide edo interes legitimo eta zuzenak dituzten pertsona batzuk, espedienteak identifikatuak, eta emango den ebazpenaren eragina jasan dezaketela:**
- 2a) Administrazioak ofizialki jakinarazi beharko die pertsona horiei prozedura hori izapidetzen ari dela.
  - 2b) Interes legitimoak dituzten pertsonak automatikoki joko dira interesduntzat prozeduran, izapide gehiagorik gabe.
  - 2c) Ebazpenak uki ditzakeen eskubideak dituzten pertsonak prozeduran pertsonatu beharko dira, behin betiko ebazpena eman baino lehen.
  - 2d) Administrazioak jendaurreko informazioarako epe bat ireki beharko du alegazioak egiteko; epe hori ez da inoiz hogeita hamar egunetik beherakoa izango.
- 3 Pertsona bat, mediku kolegiatua, administrazioarengana jotzen du bitarteko elektronikoak erabiltzeko laguntza tekniko eskatzeko, bere semea eskolatzeari buruzko administrazio-prozedura batean parte hartzeko. Administrazioak eman behar al dio eskatutako laguntza?**
- 3a) Administrazioak bitarteko elektronikoak erabiltzeko laguntza tekniko eman behar die unibertsitate-titulurik ez duten pertsonen soilik.
  - 3b) Administrazio publikoak eskatutako laguntza tekniko eman behar dio.
  - 3c) Administrazio publikoak ezin die laguntza teknikorik eman norgehiagoka-prozeduretan diharduten profesional elkargokideei.
  - 3d) Administrazio publikoak ez du laguntza teknikorik eman beharrik elkargoko kide izan behar duten profesionalen.
- 4 Funtzionario batek tratamendu bateko datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa idatzi behar du, datu pertsonalak interesdunarengandik lortzen direnean. Honako gai hauetatik, zein EZ da sartu behar oinarritzko informazio horretan?**
- 4a) Tratamenduaren helburua.
  - 4b) Tratamendu-eragilearen identitatea.
  - 4c) Datuak babesteko ordezkariekin harremanetan jartzeko datuak.
  - 4d) Datuak ezerezteko eskubidea egikartzeko aukera.
- 5 FGk Administrazioaren ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat aurkeztu zuen. Une honetan, gehieneko epea igaro da ebazpen espresurik jakinarazi gabe. Nola ulertu behar da administrazio-isiltasuna?**
- 5a) Isiltasun positibo gisa.
  - 5b) Isiltasun ezesle gisa.
  - 5c) Aurretiazko isiltasun gisa.
  - 5d) Administrazioak berariazko ebazpena emateko betebeharra du, eta, kasu honetan, baietza baino ezin da izan.

- 6**      **Prozedura batean elektronikoki parte hartu nahi duen pertsona batek Administrazioari galdetzen dio zein diren egun baliogabeak. Prozedura honetarako gaia bereziki arautzen duen lege-mailako edo Europako zuzenbideko xedapenik ez dagoenez, Erantzun hauetatik, zein da zuzena?**
- 6a)      Igande eta jaiegunak bakarrik.
  - 6b)      Larunbatak, igandeak eta jaieguntzat jotakoak.
  - 6c)      Interesduna bizi den udalerriko egun baliogabeak.
  - 6d)      Estatuko Administrazioak zehazten dituen egunetan.
- 7**      **Zuzendariak jakinarazi dizu bihartik baja emango diotela (LEI) ebakuntza kirurgiko batengatik, eta bere sailaren egiturari buruzko dekretuak ezartzen duenez, beste zuzendari batek sinatuko dituela dagozkion dokumentuak, hura ez badago. Zer izen du figura horrek?**
- 7a)      Kudeatzeko gomendioa.
  - 7b)      Izenpea eskuordetzan ematea.
  - 7c)      Ordezkotza.
  - 7d)      Eskumenak eskuordetzan ematea.
- 8**      **Udal-erakunde autonomo bateko karrerako funtzionario batek behin eta berriz alde egin du lanpostutik lanaldian zehar. Jarrera gaitzestean, ez du inolako justifikaziorik eman. Nola hartu behar da kontuan jokabide hori?**
- 8a)      Falta astun gisa.
  - 8b)      Falta oso astuntzat.
  - 8c)      Falta arin gisa.
  - 8d)      Falta astun edo arin gisa, egitateen tipifikazioa kontuan hartuta.
- 9**      **Udal batek ebazpen bat eman du gaur egun Foru Aldundiaren eskumena den gai batean. Adierazi zein den baieztapen zuzena:**
- 9a)      Udalaren ebazpena deuseztagarria da.
  - 9b)      Udalaren ebazpena baliozkotu daiteke.
  - 9c)      Udalaren ebazpenak deuseztasun erlatiboa du.
  - 9d)      Udalaren ebazpena erabat deuseza da.
- 10**      **Herritar batek salaketa bat aurkeztu du kontsumo-arloan, eta eskatu du interesduntzat har dadila balizko erantzukizunak zehazteko izapidetuko den espedientean. Adierazi zein den erantzun zuzena:**
- 10a)      Salaketak ez du beti prozedura hastera behartzen.
  - 10b)      Salaketak prozedura hastera behartzen du beti, eta salatzailea interesduna izango da beti.
  - 10c)      Salaketak prozedura hastera behartzen du beti, eta salatzailea ez da inoiz interesdun izango.
  - 10d)      Salaketak prozedura hastera behartzen du beti, eta salatzailea interesduna izango da edo ez, kasu bakoitzaren inguruabar berezien arabera.

**11 Zure udalean izapidetzen ari den zehapen-espediente baten instrukzio-egilea zaren aldetik, instrukzio-proposamen bat egin duzu, arau-hauste bat eta erantzukizun bat daudela iritzita.**

**Euskal Autonomia Erkidegoaren zehatzeko ahalari buruzko araudiaren arabera, zer jaso beharko du proposamen horrek?**

- 11a) Zalantzazkotzat jotzen dituen egitateak eta kontsiderazio horren oinarri den frogaren balorazioa.
- 11b) Arau-haustea tipifikatzen dituzten lege-aginduak non subsumitzen diren egitateak, eta horren arrazoiak.
- 11c) Erantzukizunetik salbuetsizat jotzen dituen pertsonak, lege-aginduak eta kontsiderazio horren oinarri den frogaren balorazioa.
- 11d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**12 Canteras Harribeltz SA enpresari irekitako zehapen-prozeduraren barruan, ebazteko eskumena duen organoa hertsapen-isun bat jartzea planteatzen ari zaio enpresa horri, agindutako segurtasun-neurriak betearaztera behartzeko.**

**Adierazi zein den baieztapen zuzena:**

- 12a) Hertsatzeko isuna bateraezina da ezar daitezkeen beste zehapen batzuekin.
- 12b) Hertsatzeko isuna proportzionala da ezar daitezkeen zehapenekin, eta bateragarria da haiekin.
- 12c) Hertsatzeko isunak ez du zerikusirik ezar daitezkeen zehapenekin, eta bateraezina da haiekin.
- 12d) Hertsatzeko isunak ez du zerikusirik ezar daitezkeen zehapenekin, eta bateragarria da haiekin.

**13 Administrazio-prozedura bat izapidetzeaz arduratzen zara, eta zerbitzuak ematen dituzun organoari dagokio hura ebaztea. Hura izapidetzen ari den bitartean, bigarren prozedura bat izapidetzen ari den eta hura ebazteko eskumena duen beste organo baten informazio-eskaera jasotzen duzu. Administrazioen arteko informazio-eskaera aztertzean, ikusi duzu bi prozedurek oinarri bera dutela.**

**Bi prozedurak metatzeko aukerari dagokionez, adierazi zein den jarduketa zuzena:**

- 13a) Metatu egin behar dira, baldin eta alderdi batek eskatuta hasi badira.
- 13b) Biak ofizioz hasi badira, metatu egin behar dira.
- 13c) Metatu egin behar dira, prozedura hasteko modua edozein izanda ere.
- 13d) Ez dagokio metatzea, zuzenbidearekin bat ez datorrelako.

**14 Udalean izapidetzen ari den administrazio-prozedura bateko interesdun batek prozedura horretan ikusi dituen zenbait izapidetze-akats alegatu nahi ditu.**

**Noiz egin behar du?**

- 14a) Jendaurreko informazioaren izapidean.
- 14b) Edozein unetan.
- 14c) Entzunaldiaren izapidea egin aurretik, edozein unetan.
- 14d) Hala eskatzen zaionean.

- 15 Udalean laguntzak esleitzeko espediente bat izapidetzen ari da, eta espediente horretan gehienez 100 eskabide jasotzea aurreikusi zen. Hala ere, eskabideak aurkezteko epearen barruan 450 eskabide jaso dira. Izapidetze egoki bat eta epe barruan emateko giza baliabideak eta baliabide materialak gaitu ondoren, eta hura amaitzeko astebete falta denean, instrukzioaren arduraduna zaren aldetik, jakinarazi dizute jada ez dagoela giza baliabideak eta baliabide materialak handitzeko beste aukerarik.**

**Deialdian aurreikusitako gehieneko ebazpen-epea ez betetzeko arriskuaren aurrean, eta eskabideak aztertze gutzienez beste hilabete bat behar dela ikusita, hautatu aukera zuzena:**

- 15a) Instrukzio-organoak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea eten dezake.
- 15b) Instrukzio-organoak erabaki dezake, betiere arrazoituta, ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea luzatzea.
- 15c) Instrukzio-organoak erabaki dezake ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea luzatzea, betiere prozedura izapidetzeko ezarritakoa baino luzeagoa ez bada.
- 15d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

- 16 Hirigintza Zerbitzuko arduraduna zara. Unibertsitate-kredituak aitortzeko eskaera bat iritsi zaizu. Ikusirik zure arloa ez dela eskuduna gaiaren arabera, indarrean dagoen araudiaren arabera, honela jokatu beharko duzu:**

- 16a) Eskaera atzera botako duzu eskumenik ezagatik, eta inguruabar hori interesdunari jakinaraziko diozu, zure ustez eskumena zein organok duen adieraziz.
- 16b) Eskaera ez jasotzat joko duzu, eskumenik ez duen organo batean aurkeztu delako.
- 16c) Dokumentazioa onartu eta zuzenean igorriko diozu zure ustez eskuduna den organoari, eta interesdunari jakinaraziko diezu.
- 16d) Partikularrarekin harremanetan jarriko zara, eta adieraziko diozu zein den bere ustez eskumena duen organoa.

- 17 Zure jarduera-eremuaren barruan, diziplina-espediente bat izapidetuko diozu enplegatu publiko bati. Espediente honi aplikatuko zaizkio Administrazioaren zehatzeko ahalaren printzipioak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotakoak?**

- 17a) Arau-hauste motaren arabera.
- 17b) Bai, beti.
- 17c) Ez, enplegatu publikoak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren erregulazioaren mende baitaude, erregulazio espezifikoagoa baita.
- 17d) Funtzionarioak edo lan-kontratadunak diren arabera izango da.

- 18 Bizkaiko udal batean, espediente bat izapidetzen ari da. Espediente horretan, prozeduran parte hartzeko hainbat hizkuntza aukeratu dituzten zenbait interesdun daude. Zein hizkuntzatan emango dira haiei zuzendutako dokumentuak?**

- 18a) Gaztelaniaz, legeak xedatzen baitu prozedura batean interesdun batek baino gehiagok hizkuntza ofizial bat baino gehiago erabiltzen badute, prozedura gaztelaniaz izapidetuko dela:
- 18b) Euskaraz eta gaztelaniaz, ele bietan.
- 18c) Pertsona bakoitzak aukeratutako hizkuntzan.
- 18d) Dokumentua espedientean dagoen hizkuntzan.

**19 Dirulaguntzen deialdi publiko batean, Administrazioaren isiltasunaren aurrean, prozeduran parte hartzeko eskabidea aurkeztu zuen interesdun batek:**

- 19a) Oro har, ulertu beharko du eskaera baietsi dela, interesdunak bere eskabidean egindako eskaeraren bidez hasitako prozedura batean gaudelako.
- 19b) Eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko du.
- 19c) Espedientea iraungi dela ulertu beharko du.
- 19d) Isiltasunak zentzu negatiboa duela ulertu beharko du, kasu hori alderdi-eskariz hasitako espedienteetan isiltasun positiboaren arau orokorraren salbuespenetako bat baita.

**20 Enplegatu publiko bat ohartu da, bere eginkizunengatik kudeatu beharko lukeen espediente batean, bere arreba bat interesduna dela. Nola jokatu behar du enplegatu publikoak?**

- 20a) Arreba interesduna bada ere, inpartzialtasun osoz jokatu beharko du.
- 20b) Abstentzioaren arrazoia hierarkian gorago dagoenari jakinaraztea eta haren jarraibideei itxarotea, espedientea kudeatuz jarraibide hauek jaso arte, espedientea ez iraungitzeko ezinbestekoak diren alderdietan soilik.
- 20c) Dirulaguntzen prozedura ez bada, ez da abstenitzeko arrazoia izango.
- 20d) Jardutetik abstenitu beharko du ohartu denetik, eta abstenitzeko arrazoia hierarkian gorago dagoenari jakinarazi beharko dio.

**21 Kontsumo Unitateak ebazpen bat jakinarazi behar dio FG jaunari; baina, lehen saialdian, haren etxean ez dago inor. Egoera horretan, zer egin behar da?**

- 21a) Dagokion aldizkari ofizialean iragarkia jartzea.
- 21b) Behar beste jakinarazpen-saiakera egitea FG jaunaren helbidean.
- 21c) Jakinarazpen-izapidea egintzat jotzea.
- 21d) Bigarren jakinarazpen-saiakera bat egitea FG jaunaren helbidean.

**22 Kontratazio-espediente bat hasten ari zara, eta, horretarako, espedienteari hasiera emateko justifikazio-memoria idazten ari zara. Sortak egoteari edo ez egoteari dagokionez, honako hauek justifikatu beharko dituzu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen dagokion artikuluen arabera:**

- 22a) Kontratuaren xedea sortatan banatzea erabakitzeko arrazoiak.
- 22b) Kontratuaren xedea sortatan ez zatitzea erabakitzeko arrazoiak.
- 22c) Justifikazio-memorian ez da beharrezkoa kontratua zein sortatan banatuta dagoen aipatzea.
- 22d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**23 Prozedura baten instrukzioa egiten ari zara zure jardun-eremuan. Noiz eskatu behar dira txostenak, 39/2015 Legearen arabera?**

- 23a) Arau batek hala eskatzen duenean bakarrik, arauak adierazita.
- 23b) Hierarkian gorago dagoenak hala erabakitzen badu.
- 23c) Arau batek hala eskatzen badu eskatuko da, bai eta Sailaren funtzionamendu-arauetan hala ezarrita dagoenean ere, eta txostena zer punturi buruz egin nahi den adieraziko da.
- 23d) Arau batek hala eskatzen badu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen direnean eskatuko da.

**24 Zehapen-izaerako ordenantza-proiektu bat izapidetzen ari zara. Administrazioaren zehatzeko ahalaren proportzionaltasun-printzipioari dagokionez, erantzun hauetatik zein da okerra?**

- 24a) Diruzko zehapenak ezartzean, aurreikusi beharko da arau-hauslearentzat ez dela onuragarriagoa izango tipifikatutako arau-haustea egitea hautsitako arauak betetzea baino.
- 24b) Arau-haustea eta zehapenak definitzen dituzten arauak analogiaz aplikatu ahal izango dira.
- 24c) Administrazio publikoek zehapenak ezartzean, kontuan hartu beharko da ezarri beharreko zehapena egokia eta beharrezkoa dela, eta arau-haustea eragin duen egitatearen larritasunera egokitzen dela.
- 24d) Administrazio-zehapenak ez dute inola ere ekarriko askatasun-gabetzea.

**25 Udal-hauteskundeak egin dira zure udalerrian. Nola aukeratuko da alkatea?**

- 25a) Zinegotziek aukeratuko dute, ordezkaritza lortu duten zerrendetako lehenen artean.
- 25b) Aurreko alkateak aukeratuko du.
- 25c) Automatikoki hautatuko da boto gehien lortu dituen zerrendako lehena.
- 25d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**26 Kontratuen arloan, hondamendiak direla-eta administrazio publikoak berehala jardun behar badu, prestazioak ematen hasteko epea EZ da izango epe hau baino luzeagoa:**

- 26a) Hilabetekoa.
- 26b) Hamabost egun.
- 26c) Hogeia egun.
- 26d) Hamar egun.

**27 Bizkaiko toki-erakunde bat tasa berriak ezartzeko aukera aztertzen ari da. EZIN izango dute tasarik eskatu, beste zerbitzu batzuen artean, honako hauengatik:**

- 27a) Landa-zaintza.
- 27b) Iturri publikoetako ur-hornidura.
- 27c) Eskatzen duten establezimenduen zaintza berezia.
- 27d) Autotaxiatarako eta alokairuko gainerako ibilgailuetarako lizentziak edo administrazio-baimenak ematea.

**28 Toki-administrazio bateko partzuergo bat bere aurrekontuak prestatzen ari da. Adierazi dokumentu hauetako zein sartuko den haietan:**

- 28a) Behin-behineko galdu-irabazien kontua.
- 28b) Ondare gordinean aurreikusitako aldaketen egoera.
- 28c) Ondare garbiaren aldaketen behin-behineko egoera-orria.
- 28d) Aurreikusitako balantzea.

**29 Udal batek aldaketa batzuk onartu ditu bere aurrekontuetan. Noiz emango zaio osoko bilkurari aldaketa horien berri?**

- 29a) Egiten den lehenengo bileran.
- 29b) Epe hori ez dago araututa.
- 29c) Aldaketa onartu eta 15 egun igaro baino lehen.
- 29d) Aldaketak osoko bilkurak onartu behar ditu.

**30 Udalak diru-sarrerak lortu ditu hainbat kontzeptutatik. Kreditu berriak "habilitatzeko" moduko diru-sarreratzat hartuko dira honako hauek eratorritakoak:**

- 30a) Ondare-ondasunak besterentzea.
- 30b) Zerbitzu-emateak.
- 30c) Maileguak itzultzea.
- 30d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**31 Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeek honako zerga hauek eskatu beharko dituzte, besteak beste eta haiek arautzen dituzten arau eta xedapenekin bat etorritik:**

- 31a) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.
- 31b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Oinordetzen gaineko Zerga.
- 31c) BEZa eta sozietateen gaineko zerga.
- 31d) Ondarearen gaineko zerga eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

**32 Basauriko Udaleko zinegotzi batek 8 egunez udalerritik alde egitea aurreikusi du. Nola jokatu beharko du?**

- 32a) Alkatetzari pertsonalki jakinarazi beharko dio, ahoz edo idatziz.
- 32b) Talde politikoaren bozeramaileak telematikoki jakinaraziko du.
- 32c) Osoko bilkurari jakinarazi beharko dio, pertsonalki edo bozeramailearen bidez.
- 32d) Ez dauka horren berri emateko betebeharririk.

**33 Basauriko Udaleko "Ekin" udal-talde politikoak zinegotzi bakarra du. Posible al da egoera hori?**

- 33a) Ez, gutxienez bi zinegotzi izan behar dituztelako.
- 33b) Ez, talde mistoak bakarrik izan dezake zinegotzi bat.
- 33c) Bai, baldin eta agintaldi korporatiboaren hasieran gutxienez bi zinegotzi bazituen.
- 33d) Bai, Udal Erregelamendu Organikoak ez du inolako mugarik ezartzen zentzu horretan.

**34 Basauriko Udalak osoko bilkurarako deia egin du, eta lehenengo deialdian korporazioko legezko kide-kopuruaren laurdena bertaratu da...**

- 34a) Bilkura automatikoki ordu berean, bi egun geroago, deituztat joko da.
- 34b) Bilkura egin ahal izango da beharrezkoa den quoruma baitago.
- 34c) Deialdia indarririk gabe utziko da, eta gai-zerrendan sartutako gaien azterketa ohiko edo ezohiko lehenengo bilkurarako utziko da.
- 34d) Beharrezkoa den quoruma dagoelako egin ahal izango da bilkura, baina bilkura osoan zehar mantendu beharko da.

**35 Hainbat zuzenketa aurkeztu zaizkio Basauriko Osoko Bilkurari aurkeztutako proposamen bati. Zein izango da bozketaren ordena?**

- 35a) Udal Erregelamendu Organikoan ezarritakoaren arabera, ordezkaritza handiena duen udal talde politikoak aurkeztutakotik hasiko da.
- 35b) Alkatetzaren iritziz proposamenaren edukitik urrunen dagoen edo desberdinenetik hasiko da.
- 35c) Alkatetzaren iritziz proposamenaren edukiarekin hurbilen dagoenetik hasiko da.
- 35d) Alkateak erabakitzen duenetik hasiko da, askatasunez.